

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Sektore Publikoaren Kontratazio Legea Ley de Contratos del Sector Público

2019ko otsailaren 26a / 26 de febrero de 2019

www.ehu.eus

GAIAK / TEMAS

- Kontratu txikiak
- Mantentze lanetarako kontratua
- Esparru hitzarmenak
- Gestio ekonomikoari buruzko beste gai batzuk
- Galde-eskeak
- Contratos menores
- Contratos de mantenimiento
- Acuerdos Marco
- Otros aspectos de la gestión económica
- Ruegos y preguntas

KONTRATU TXIKIAK / CONTRATOS MENORES

118. artikulua. Kontratazio espedientea, kontratu txikietan (azaroaren 8ko 9/2017 Legearen hasierako idazketa, azaroaren 9ko BOE)

1. Kontratu txikiak 40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia dutenak dira, baldin eta obra kontratuak badira, edo 15.000 eurotik beherakoak, baldin eta hornidura edo zerbitzu kontratuak badira, alde batera utzi gabe estatu mailan zentralizatutako obrei, zerbitzuei eta horniketei buruz 229. artikuluan ezarritakoa.

Kontratu txikietan, espedientearen izapidetzeak kontratazio organoaren txostena eskatuko du, kontratuaren beharizanaren zioak ematen dituena. Halaber, gastua onestea eskatuko da, eta dagokion faktura espedienteari gehitzea; fakturak lege hau garatzeko arauak ezartzen dituzten baldintzak bete beharko ditu.

2. Obra kontratu txikian, obren aurrekontua ere gehitu beharko da; nolana ere, dagokion proiektua ere beharko da arau espezifikoek horrela eskatzen dutenean. Era berean, 235. artikulua aipatzen duen gainbegiratze bulego edo unitateen txostena eskatu beharko da, baldin eta lanak obraren egonkortasunari, segurtasunari edo estankotasunari eragiten badie.

3. Espedientean, justifikatuko da ez dela kontratuaren objektua aldatzen ari kontratazioaren arau orokorren aplikazioa saihesteko, **eta kontratistak ez duela izenpetu kontratu txiki gehiagorik, banaka edo guztiak batera artikulua honen lehenengo apartatuan ageri den kopurua gainditzen duenik**. Kontratazio organoak egiaztatuko du arau hori bete egiten dela. Kanpoan gelditzen dira 168.a).2.a artikuluan jasotako kasuak

4. Kontratu txikiak 63.4 artikuluan aurreikusitako eran argitaratuko dira.

KONTRATU TXIKIAK / CONTRATOS MENORES

- **1/2018 Instrukzioa, 2018ko apirilaren 10ekoa, UPV/EHUko Gerentearena, kontratu txikiei buruzkoa.**
- **Erabakia, 2018ko apirilaren 19koa, UPV/EHUren Errektorearena, Gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzeko 2017ko urtarrilaren 25eko erabakia aldatzeko dena (maiatzaren 4ko EHAA). Aldaketa kontratazioaren alorreko eskumenei dagokie.**
- **2/2018 instrukzioa, 2018ko ekainaren 27koa, UPV/EHUko Gerentearena, Kontratu txikiei buruzko apirilaren 10eko 1/2018 instrukzioa osatzekoa (Kontratu txiki/erosketa txiki).**

KONTRATU TXIKIAK / CONTRATOS MENORES

Berrogeita hamalagarren xedapen gehigarria. Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemaren eragile publikoekin egindako kontratuei aplikatutako araubidea (2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legeak - uztailaren 4ko BOE- sartutako aldaketa).

Haren jardueraren izaera berezia kontuan hartuta, Lege honen 118. artikuluan aurreikusitako mugaren salbuespen gisa, kontratu txikitzat hartuko dira 50.000 euroko edo hortik beherako balio zenbatetsia duten hornidura edo zerbitzu kontratuak, baldin eta Espainiako Zientzia, Teknologia, Berrikuntza Sistemaren eragile publikoek egindakoak badira eta kontratazio organoaren zerbitzu orokorretara edo azpiegituretara bideratzen ez badira.

Ondorio horietarako, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legean ezarritakoaren arabera, Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemaren eragile publikotzat hartuko dira honako hauek: unibertsitate publikoak; ikerketako erakunde publikoak, fundazioak, partzuergoak eta Estatuko administrazio orokorreko gainerako exekuzio agenteak; beste administrazio publikoen menpe dauden aurrekoen antzeko ikerketa erakundeak; Ikerketa Biomedikoen fundazioak, eta Estatuko Osasun Sistemaren zentroak, erakundeak eta partzuergoak.

KONTRATU TXIKIAK / CONTRATOS MENORES

- **3/2018 Instrukzioa, uztailaren 26koa, UPV/EHUko Gerentearena, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen berrogeita hamalagarren xedapen gehigarri berriaren aplikazioari buruzkoa.**
- **4/2018 Instrukzioa, irailaren 14koa,UPV/EHUko Gerentearena, Sektore Publikoko Kontratuen berrogeita hamalagarren xedapen gehigarri berriaren aplikazioari buruzko uztailaren 26ko 3/2018 Instrukzioa aldatzeko dena.**

KONTRATU TXIKIAK / CONTRATOS MENORES

118. ARTIKULUAREN ALDAKETA, 2019. URTERAKO ESTATUKO AURREKONTU OROKORREN LEGE PROIEKTUAN AURREIKUSITAKOA (Gorte Nagusiak, 2019ko urtarrila)

1. Kontratu txikiak 40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia dutenak dira, baldin eta obra kontratuak badira, edo 15.000 eurotik beherakoak, baldin eta hornidura edo zerbitzu kontratuak badira, alde batera utzi gabe estatu mailan zentralizatutako obrei, zerbitzuei eta horniketei buruz 229. artikuluan ezarritakoa.

2. Kontratu txikietan, espedientearen izapidetzeak kontratazio organoaren txostena eskatuko du, kontratuaren beharizanaren zioak emango dituen eta aurreko atalean deskribatutako atalaseen aplikazioa saihesteko bere objektua aldatzen ez duela erakutsiko duena.

3. Halaber, gastua onestea eskatuko da, eta dagokion faktura espedienteari gehitzea; fakturak lege hau garatzeko arauak ezartzen dituzten baldintzak bete beharko ditu.

4. Obra kontratu txikian, obren aurrekontua ere gehitu beharko da; nolana ere, dagokion proiektua ere beharko da indarreko legeek horrela eskatzen dutenean. Era berean, 235. artikulua aipatzen duen gainbegiratze bulego edo unitateen txostena eskatu beharko da, baldin eta lanak obraren egonkortasunari, segurtasunari edo estankotasunari eragiten badie.

5. Artikulu honen 2. atalean ezarritakoa ez da aplikatuko, baldin eta kontratuen ordainketa kutxa finkoko aurrerapen sistemaren edo ordainketa txikiak egiteko antzeko beste baten bidez egiaztatzen bada, betiere kontratuaren balio zenbatetsia 5.000 eurotik beherakoa bada.

6. Kontratu txikiak 63.4 artikuluan aurreikusitako eran argitaratuko dira.

KONTRATU TXIKIAK / CONTRATOS MENORES

3/2019 ELD, 2019ko otsailaren 8koa, Zientzia, Teknologia, Berrikuntza eta Unibertsitatearen alorreko premiazko neurriena (otsailaren 9ko BOE) **(otsailaren 28an, osteguna, baliozkotu edo indargabetu beharrekoa)**

**ZIENTZIA, BERRIKUNTZA ETA UNIBERTSITATE MINISTERIOAREN
PRENTSA OHARRA ELDri BURUZ**

“El Gobierno aprueba un paquete de medidas para facilitar la investigación en España

....

Agilizar la compra de materiales e instrumentos para proyectos científicos

Los centros de investigación y universidades podrán ejecutar contratos menores de servicios y suministros hasta importes de 50.000 € con el mismo proveedor para distintas unidades, aunque anualmente se superen dichos límites con la suma total de los contratos (por ejemplo, la compra de material de laboratorio para dos proyectos de la misma universidad).”

KONTRATU TXIKIAK / CONTRATOS MENORES

Berrogeita hamalagarren xedapen gehigarria. Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemaren eragile publikoek egindako kontratuei aplikatu beharreko araudia (Zientzia, Teknologia, Berrikuntza eta Unibertsitatearen alorrean premiazko neurrien 2019ko otsailaren 8ko 3/2019 ELDk sartutako aldaketa, otsailaren 9ko BOE).

Haren jardueraren izaera berezia kontuan hartuta, Lege honen 118. artikuluan aurreikusitako mugaren salbuespen gisa, kontratu txikitzat hartuko dira 50.000 euroko edo hortik beherako balio zenbatetsia duten hornidura edo zerbitzu kontratuak, baldin eta Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemaren eragile publikoek egindakoak badira eta kontratazio organoaren zerbitzu orokorretara edo azpiegiturretara bideratzen ez badira.

Ondorio horietarako, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legean ezarritakoaren arabera, Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemaren eragile publikotzat hartuko dira honako hauek: unibertsitate publikoak; ikerketako erakunde publikoak, fundazioak, partzuergoak eta Estatuko administrazio orokorreko gainerako exekuzio agenteak; beste administrazio publikoen menpe dauden aurrekoen antzeko ikerketa erakundeak; Ikerketa Biomedikoen fundazioak, eta Estatuko Osasun Sistemaren zentroak, erakundeak eta partzuergoak.

Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemaren eragile publikoek egindako kontratu txikietan, espedientearen izapidetzeak kontratazio organoaren txostena eskatuko du, kontratuaren beharrianaren zioak emango dituen eta atalaseen aplikazioa saihesteko bere objektua aldatzen ez duela erakutsiko duena.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa ez da aplikatuko, baldin eta kontratuen ordainketa kutxa finkoko aurrerapen sistemaren edo ordainketa txikiak egiteko antzeko beste baten bidez egiaztatzen bada, betiere kontratuaren balio zenbatetsia 5.000 eurotik beherakoa bada.

KONTRATU TXIKIAK / CONTRATOS MENORES



EUEBk Zientziari eta Unibertsitateari buruzko ELDren premiazko neurri batzuen garrantzia onartzen badu ere, oro har, eskasak direla irizten dio.

2017ko **Sektore Publikoko Kontratuen Legearen** aldaketei dagokienez, kontratu txikien espedienteen izapidetzea sinplifikatzen da, baina zalantzan geratzen da ea kontratu mota horientzat arauan aurreikusitako 50.000 euroko muga kuantitatiboa ikerketa proiektuetan aintzat har daitekeen ala ez. Errege Lege Dekretuaren aurkezpenean ministerioak emandako informaziotik hori ondoriozta daitekeen arren, aukera hori ez da argi aurreikusten, ez artikuluetan, ez zioen azalpenean. Horren harira, Gobernuak lehenbailehen argitu beharko du alderdi hori, unibertsitate adinako arauaren interpretazio egotea saihestu nahi badu, horixe gertatu baitzen jada zenbateko bera 2018ko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean sartu zenean.


KONTRATU TXIKIAK / CONTRATOS MENORES

OROIGARRIA

- SPKLk kontratu txikia ia salbuespenezko neurritzat hartzen ditu, ezusteko, unean uneko, noizean behingo, premiazko eta ongi zehaztutako beharrei erantzuteko erabiltzen direnak, beste aukerarik geratzen ez denean, eta EBren gomendioei jarraitzen die, zeinetan gardentasuna indartzeko eta kontratazio zuzena eta publizitaterik gabeko negoziatua nabarmen murrizteko eskatzen baita. Horren ondorioz, SPKLk kontratazio zuzena kontratu txikietara bideratzen du, horien erabilera arrazionala eta mugatua sustatuz.
- Ezin da kontratazio txikia erabili, aldian behin ematen diren eta aurreikus daitezkeen beharrei erantzuteko.
- Kontratu txikiek ezin dute eduki urtebetetik gorako iraupena, eta ezin dira luzatu.
- Ezin da jada kontratu txiki baten prestaketa eta esleipena "paperik gabe" izapidetu.

MANTENTZE LANETARAKO KONTRATUA CONTRATOS DE MANTENIMIENTO


KONPONKETAK



MANTENTZE LANETARAKO KONTRATUA

CONTRATOS DE MANTENIMIENTO

PREBENTZIOKO MANTENTZE LANAK



ESPARRU HITZARMENAK / ACUERDOS MARCO

- Bidaia agentziak (**egiteke**)
- Autobusen alokairua
- Ikerketarako animaliak
- UPV/EHUK sortutako iragarkiak
- Artikulu korporatiboak
- Langileentzako autobusak
- Laborategiko mantalak
- Edukiontzi higienikoak, bakterioestatikoak, edukiontziak...
- Kontsumigarri informatikoak
- Publizitate kanpainak eta beste garapen grafiko batzuk
- Ikus-entzunezko ekipamendua
- Ekipamendu informatikoa
- Ikerketako ekipamendua (**egiteke**)
- Funtzio askotako ekipoak - fotokopiagailuak
- Laborategiko gasak
- Elikagaien eta edarien makinak
- Inprentako materiala
- Bulegoko materiala
- Altzariak
- Mudantzak
- Webguneak
- Fotokopiagailuko papera
- Argazkilaritza zerbitzuak
- Mezularitza eta paketeria zerbitzuak
- Posta zerbitzuak
- Euskarako itzulpenak
- Tresna higienikoak

ESPARRU HITZARMENAK / ACUERDOS MARCO

LOTEAK

1. Erreaktibo kimikoak - Azidoak eta baseak
2. Erreaktibo kimikoak - Konposatu ez-organikoak eta gatzak
3. Erreaktibo kimikoak - Konposatu organikoak
4. Erreaktibo kimikoak - Disolbatzailea
5. Erreaktibo kimikoak - Disolbatzaile deuteratuak
6. Biokimikako eta Biologia Molekularreko erreaktiboak
7. Laborategiko kitak
8. Mikrobiologiako eta Zelula Hazkuntzako erreaktiboak
9. Segurtasun ekipoak eta materialak
10. Erreaktiboak eta kromatografiako materiala
11. Laborategiko material metalikoa (Instrumentala eta muntaketa elementuak)
12. Laborategiko material plastikoa
13. Laborategiko beirazko materiala
14. Iragazpen materiala, papera eta kartoia
15. Neurtzeko ekipoak
16. Basoko eta lurzoruko instrumentazioa
17. Mikroskopiako erreaktiboak eta materiala
18. Animaliategiko materiala
19. Trebetasun kliniko eta simulaziorako material kirurgikoa
20. Portaeraren analisirako materiala
21. Fotolitografiarako materiala
22. Produktu urratzaileak; harria, zeramika, hormigoia edo beira lantzeko tresnak
23. Garbitasun eta ostalaritza materiala
24. Izarniadura likidorako materiala
25. Material erradioaktiboa

ESPARRU HITZARMENAK / ACUERDOS MARCO

HORNIDURAREN XEDEA

- Adibide batzuk ematen badira ere, ez da ematen zerrenda zehatz bat; hortaz, enpresa bakoitzak katalogo lotesle bat aurkeztu beharko du, elementuen zerrenda izango duena, bakoitzaren prezioa eta entregatzeko epea adieraziz.
- Enpresa esleipendun bakoitza bere katalogoa osatzen duten salgai guztien esleipenduna izango da.
- Oinarrizko hitzarmenean honako ezaugarri hauek betetzen dituzten elementu guztiak sartuko dira:
 - Suntsikorrak izatea.
 - Ikerketa eta irakaskuntza proiektu edo programetan erabiltzeko izatea.
 - Elementu merkaturatu berriak izatea, lehengoak ordezkatu eta haien ezaugarri teknikoak edo ekonomikoak hobetuko dituztenak.
- Modu osagarrian, beste hornigai batzuk sartu ahal izango dira, ustekabeen eta salbuespen gisa, haien izaera berezia dela eta UPV/EHU beharrezkoak badira.
- Loteetan aipatutako elementuez gainera, lizitatzailerak katalogoak aurkeztu ahal izango dituzte, beren elementu guztiekin eta betiere eskaintzan aurkezten duten loteari edo loteei lotutakoak.
- Esleipendunak zerrendak eguneratu ditzake.

ESPARRU HITZARMENAK / ACUERDOS MARCO

ESLEIPEN IRIZPIDEAK

Enpresak lote bakoitzean dauden elementuen hornitzaile gisa homologatuko dira, haien eskaintzetan irizpide hauek betetzen badituzte:

- Lehiatzen diren lote edo loteetan sartutako elementuren bat duten eskaintzak aurkeztea. Lotearen zenbat elementu barne hartzen diren aintzat hartuta, A motako eta B motako eskaintzak bereiziko dira, honen arabera:
 - **A mota:** Lote baten elementuen % 70 baino gutxiago eskaintzea.
 - **B mota:** Lote baten elementuen % 70 gutxienez eskaintzea.
- Baldintza teknikoen orrian eskatutako baldintza teknikoak betetzea.
- Katalogo lotesle bat aurkeztea gailu elektronikoko batean; bertan, elementuen zerrenda bat emango da, bakoitzaren prezioa eta entregatzeko epea adierazita.

Enpresak hautatzea, A motaren edo B motaren arabera

Lote baten esleipendun izateari lotuta, enpresa mota edo beste izateak eska dakizkiokeen hornigaien kopuruari eragiten dio, behin esleipendun denean:

A mota: Soilik 15.000 €-ko edo hortik beherako balioa (BEZ kanpo) duten hornidura eskaerak jaso ahal izango dituzte.

B mota: Edozein balioko hornidura eskaerak jaso ahal izango dituzte.

ESPARRU HITZARMENAK / ACUERDOS MARCO

ESLEIPEN IRIZPIDEAK

- **Prezioa:** 26 puntu. Eskaintza bakoitzaren puntuazioa proportzionalki egingo da; hala, 26 puntu emango zaizkio prezio txikiena aurkezten duen enpresari eta 0 puntu, prezio handiena eskaintzen duen enpresari.
- **Entregatzeko epea, honako hauen arabera:**
 - **Bi lanegun edo hortik beherako epea:** 25 puntu
 - **48 ordutik gorako eta 5 lanegun edo hortik beherako epea:** 12 puntu
 - **Bost lanegunetik gorako epea:** 4 puntu
- **Elementuaren kalitatea.** Irizpide hori hornidura eskatzeko unean baloratzen da; gehienez 49 puntu ematen dira, kontuan hartuta hautatutako elementuak erabiliko den esperimentuaren edo ikerketa proiektuaren amaierako emaitzaren gainean eragin negatiborik edo ezustekorik izan dezakeen ala ez.

Irizpide horri esleitutako puntuazioa erabiltzen den esperimentuaren edo ikerketa proiektuaren amaierako emaitzaren gaineko arrisku mailaren arabera zehazten da; hala, inolako arriskurik ez badago, 49 puntu ematen dira, eta arriskua handia bada, 0 puntu.

Irizpide hori loteetan homologatutako enpresei eskatutako hornidura bakoitzean aplikatuko da, eta kasu bakoitzean irizpidearen aplikazioa justifikatu beharko da.

GESTIO EKONOMIKOARI BURUZKO BESTE GAI BATZUK

OTROS ASPECTOS DE LA GESTIÓN ECONÓMICA

- **Zerbitzua edo hornidura eman aurretik igorri, kontabilizatu eta ordaindu diren fakturak.**
- **Sortzapen printzipioa ez betetzea (fakturan adierazitako urteaz bestelako urte batean kontabilizatutako gastua).**
- **Gastua/sarrera kontabilizatzea, hura egiaztatzeke dokumentaziorik gabe.**
- **Atzerapenak, fakturen kontabilitatean edo ordainketan.**
- **Gastuaren deskribapen okerrak**
- **Akatsak, gastua kontabilizatzean**
 - **Kontabilizazio okerra, aurrekontu partidetan**
 - **Kontabilizazio okerra aurrekontu partidetan, ondasun inbentariagarriak izatearen astungarriarekin.**
- **Gorabeherak dieten likidazioan.**

GALDE-ESKEAK / RUEGOSY PREGUNTAS



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Eskerrik asko!